KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2023ko urtarrila - 234 zkia.



Eguneroko bainulariak

SANTA ESKEA ESPELEOLOGIAREN ALDE • URAZEMENDI MUTRIKUARREK, URAZANDI DEBARREK
ENEKO ERRAIZ, KIROLA ETA KAZETARITZA UZTARTUZ
BERTAN, MUTRIKUTIK URRUTIRA GABE

Samiela

Egiteko beste modu bat!

Matrikulazio epea zabalik

Otsailaren 13tik 24ra

- **Konfiantzaren pedagogia**:
  - Ikaslea erdigunean
  - Zirkulazio librea
  - Interesak eta bizipenak oinarri
- Montessori filosofia
- Ingelera 2 urtetik aurrera
- Hezkuntza emozionala:
  - "GuGan" proiektua

"Arizmendi Ikastola"

Gelako egunerokoa ikusteko aukera.
Ate irekiak nahieran.
Eguna eta ordua adosteko deitu 943603195 zenbakira.

Euskara erein, hazi, loratu!



www.samiela.eus zuzendaritza@samiela.eus 943 60 31 95

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Arantza Ugarte Lopetegi

Erreala vs. birtuala

Urte zaharrari errepasoa egin eta urte berriari begira jarri naizenean ikusi dut, eguneroko bizitza erreala eta birtuala gero eta lotuago doazela.

Goizean jaiki, komuneko buelta egin, gosaldu eta bazkaritarako lapikoa martxan jartzen dudan bitartean, tarteka lagun eta senideei egun onak ematen dizkiet, hitzik ere esan gabe, watsapeko sarea erabilita, senideek eta lagunek bide beretik erantzuten didate eta poztu egiten naiz. Egunerokoan norbaitek huts egiten badu, pentsatzen hasten naiz, kontxo, arraroa honek ez erantzutea, eguneroko zereginekin edo nahastuta ibiliko da, edo... zerbait gertatuko zitzaion... zerbait.... sekula ez zait bururatzen zerbait ona gertatuko zitzaionik, zerbait txarra bai... Une bat ematen dut hori pentsatzen eta sutan dagoenak usain ez hain ona botatzen duenean, konturatzen naiz mundu errealean sua bere lana egiten ari dela.....

Beste gauza askoren artean, pasa den urtean gertatu zait honako hau: kutxara joan kontu batetik bestera transferentzia egitera eta mostradorean inor ere ez. Zain egon nintzen, denbora erreala pasatzen ari zen, pazientzia erreala agortzen ari zitzaidan baina inor ere ez zen agertzen mostradorera. Alboko gelako atea irekita zegoenez hurbildu nintzen eta galdera egin nion:

- Mostradorean ez dago inor, noiz etorriko da?

Esertzeko esan zidan eta ea e-mailik ba ote nuen galdetu zidan. Ezetz erantzun nion. Ba, ikasi egin beharko duzu oinarrizko gauzetan erabiltzeko. Instant berean piztu zitzaidan buruan argitxoa: alarma... Transferentzia egiten ez badit, kontua beste kutxa batera eramango det... Gaur ez bada, beste egun batean egingo det. Burua lanean ari zitzaidala, ea zertara joan nintzan galdetu zidan eta diru transferentzia egin nahi nuela esan nion. Berehala prestatu zen, makinaren bidez, transferentzia neuk nola egin nezakeen erakustera. Nik ez nuela horretan ezer ulertzen erantzun nion eta, orduan, berak bere ordenagailutik egin zidan transferentzia. Berriz ere gogorarazi zidan lan horiek neuk egiten ikasi beharko nuela, eta nik erantzun nion pentsatuko nuela kutxan nituen diruak nora eraman.

Erreala eta birtuala gero eta nahasiago daude gure bizitzan. Soldata dirutan kobratzen genuen eta erosten genuena dirutan ordaintzen genuen, soldata kutxaren bidez kobratzera azkenean behartu egin gintuzten eta etxeko gastutako fakturak kutxan helbideratzen erakutsi ziguten. *Askoz erosoagoa da, faktura bakoitza ordaintzen ez zara ibiliko, hori erraz-erraz kutxak berak egingo dizu* eta ohitu egin ginen. Geroztik, ordainketa egin beharreko zerbait kontratatzerakoan kutxara bideratzen dut eta listo. Ohitura errotu egin zaigu eta kutxa egiten dituen lanengatik kobratzen hasi zaigu... hori gutxitxo iruditzen, eta eurek egin beharreko lana ere geuri eginarazi nahi digute. Eskerrak, gure moduko aittona bati buruan argitxoa piztu eta firmak biltzen hasi zen, oraingoz, kutxako mostradorean badugu langile bat nahi ditugun ordainketa, transferentzia edo beste zereginak egiteko... Dena birtualki egiten ohitu direnei ere hankasartzeak gertatzen zaizkie, edo tarteka nahi gabeko piratek iruzurrak egiten dizkiete, baina kutxak ez die erantzuten... akatsa zeuk egin duzu ba zeure kontu okerra asumitzea, pirata informatikoa zure kontuan sartu eta dirua lapurtu dizu, lehenengo eta behin zeure erantzukizuna da, gero, gauzak estutzen badira, agian, kutxak asumituko du gastua....

Zer pentsatu eman dit honek guztiak, errazera jotzen ohitu gara, erosoago egiten zait han zain egon beharrean etxetik zeregin horiek neuk egitea... Ez ote gara ari lanak eta erantzukizunak geure gain hartzen eta kutxari gure dirua eta horrek izan ditzakeen onurak ematen?

Sukaldeko erre usainak bete dit sudurra. Banoa!

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza
jasotzen du:
Mutrikuko Udala

www.lurraldebus.eus 900 300 340

neguko ordutegia uztailaren 31 arte

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Debaraino (20:40)
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

*lanegun ostiraletan

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	*23:20	*01:10
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	23:30	01:20
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:55	01:40
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

*lanegun ostiraletan

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	*22:05
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	20:55	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	---	---
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	---	---

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

ig. ig./ jai
lr. lar.

Donostia	10:30	14:30	17:00	ig.20:30	lr.21:00	
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50	
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	lr.7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	lr.22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

GAUEAN Mutrikutik: ostiraletan 23:25 eta 1:15; larunbatetan 23:25, 23:55, 1:55, 3:55, 5:55.

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	lr.6:50	7:45	orduro	19:45	lr.20:45	lr.21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	lr.21:55	lr.22:55	23:00

GAUEAN Mutrikura heldu: ostiraletan 0:25; larunbatetan 1:10, 3:10, 5:10, 6:10. Eibartik -25 min.

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	lr.8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	lr.9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	lr.22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	lr.9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	lr.8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	8:29	22:29
Donostia	7:38	8:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxieus/garraioa

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ERANTZUNA

Xabier Astigarraga udal igeltseroak maila pertsonalera eramanda jendaurrean agertutako gaiaren inguruan honakoa adierazi beharra ikusten dut. Batetik, irakurlea ikuspegi eta iritzi bakarrarekin geratu ez dadin; eta bestetik, nire izen onaren, ona bada, aurka adierazitakoen aurrean egia agertu nahian.

Lehenik, esan behar dut udal langileek askotan dagokien lana baino gehiago egiten dutela, eta hori, gurea bezalako udal batean, eskertzekoa dela eta baloratzekoa. Baina halako balorazioak ez dira egiten Alkatearekin adostuta edozein goizetan, ez udal batean behintzat. Kontu publikoak erabaki kolektiboen esku geratzen dira, langile-alkate harreman partikularretik haratago. Subjektu desberdinak parte hartzen dute halakoetan, langileen ordezkariak barne. Gaiei ikuspegi indibidualetik edo ikuspegi kolektibotik heldu ahal zaie; interes publikoa bilatzen dugunontzat, ikuspegi kolektiboa aurretik jartzea beharrezkoa da.

Bigarrenik, auzi honen atzean dagoena baloratua sentitzea dela iruditzen zait, eta balorazio hori dirutan erakustea. Ildo horretatik, udaleko brigadaren baitan lanpostu mota desberdinak daudela azpimarratu behar da, bakoitzak bere ezaugarriak dituelarik. Hala, lanpostu mota bakoitzak bere balorazioa du eta balorazio horiek eguneratuz joan dira denborarekin, aurreko postuekin parekatuz. Bere garaian orduko igeltsero postu berria aurretik zegoen postuarekin parekatu zen modu berean. Langileen artean tratu desberdina egon dela adieraztea eta nire partetik diskriminazioa eman dela baieztatzea euskarririk gabeko gezurra da, nire izenaren eta Alkatearen figuraren aurkako eraso larria izateaz gain.

Amaitzeko, nire izenaren aurka adierazitakoaren aurrean bestelako biderik hartu behar dudan erabaki aurretik, argi dut Alkatearen figura defendatzeko bidea egin behar dudala, gaurko hitz iraingarriak etorkizunean errepika ez daitezen, ez behintzat arrazoirik eman gabeko hitz errazetan.

Joseba Palenzuela Arrieta
Alkatea



Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

Euskarak egiten gaitu herri euskaldun

SANTA ESKEA
espeleologia taldearen alde

Bi urteko etenaren ostean bueltan da ohiko Santa Eskea Mutrikun. Ohitura jarraituz otsaileko lehen larunbatean ospatuko da, aurtengoan otsailaren 4an, hain zuzen Santa Ageda bezpera egunean.

Azken urteetan egin den moduan, Santa Eskean batzen den dirua beharren den herriko elkarte edo taldeentzat bideratuko da. Aurtengoan Burumendi Espeleologia Taldea etorri da laguntza eske eta batzen den zakuaren erdia beraientzat izango da, eta beste erdia bertso eskolaren beharrak finantzatzeko erabiliko da.

Honako hau kontatu digute Burumendi Espeleologia Taldeko kideek:

"*Makila eskuan eta kaskoa buruan dugula gatoz aurtengoan ere bertso eskolari eskean*, diote Burumendi Espeleologia Taldeko Joseba Aramaiok eta Nerea Arrizabalagak. Iaz eman genuen aurreneko pausua; ordea, pandemiaren ondorenak itxi zizkigun ateak. Horrela, bada, hemen gara berriro ere Burumendi Espeleologia Taldearen aldeko eskea egiteko eskariarekin ate joka. Batetik, espeleologiaren magia nahiko genuke azaldu; Mutriku herriak lur azpian dituen altxorrak erakutsi; Arnok izkutatzen dituen lur-azpiko laku, erreka, galeria eta formazioak azaleratu. Gainazaletik ibiltzen gara maiz: Abeletxetik Lekondera, Lekondetik Arnoko gurutzera, Banderatik Kanpazarrera, Birularretik Txoriaitzera, Ormolatik Zazpi leizeta aldera, edota Basartetik Jangoiko mendira. Bai, hala da, Burumendi Mendi Taldeko kideak baikara geu ere. Baina, azaletik ibili eta leize eta koba horiek zer izkutatzen duten kuriositatea medio elkartu ginen Burumendiko espeleologoak, orain dela bost bat urte. Gaur egun hemetzortzi bat kide gabiltza hortan. Agian, esploratzeko grinak elkartu gintuen. Eta, esplorazio saioen ondoren etorri ziren katalogo lanak, topografiak eta marrazketa saioak. Espeleologia ez baita esplorazio hutsa, hori baino aberatsagoa da. Lur azpiak iluntasunean izkutatzen dituen sakon horien argazkia marrazten dugu guk; irudia hiru dimentsiotan sortuz eta barrunbeari forma emanez. Esaterako, Kobeta leizea. Buru-belarri baigabiltza bertan.



Hasiera batean sarrera bakarra ezagutzen genuen, baina, prospekzio lanak direla-eta, bigarren sarrera aurkitu genion, sistema bihurtuz. Bertan, berrogei metroko jauzi bertikalak ditugu, galeria erraldoiak, estalaktita eta estalagmita ezin ederragoak eta baita dimentsio handiko laku bat ere. Guztira bost kilometro esploratu ditugu Kobeta kobazuloan. Baina, hori guztia egin ahal izateko bidean mendizaleak, herritarrak eta baserritarrak izan ditugu lagun, eta bide batez eskaini diguten laguntza eskertu nahiko genieke. Egia da barrunbe horietara eramaten gaituzten sarrerak askok ezagutzen dituzuela, ordea, ama lurrak bertan izkutatzen dituen edertasunak gutxi batzuek bakarrik ikusi dituzte. Horregatik, hori guztia zabaldu nahiko genuke kantuan. kalerik-kale, auzoz-auzo, koplaz-kopla. Alegia, euskal ohiturei eutsiz eta espeleologia erakutsiz. Bestetik, Arnoko barrunbeetan segurtasun osoz ibili ahal izateko material berezia erabiltzea ezinbestekoa da: sokak, mosketoiak, txapak, petateak, "spitak", distoa... horiek guztiek egoera onean egon behar dute, eta sarri-sarri aldatzea beharrezkoa da. Hori horrela, sortzen diren gastuei aurre egitea ez da kontu erraza. Beraz, aipatutako guztiagatik zuengana zuzendu gara Santa Eskean gure aldeko eskaera egin dezazuen, makilari eutsiz eta koplari eraginez."





Malen Aldalur, Santa Eskeko eta Bertso eskolako kidearen bizipenak

Prest uzten ditut arropak aurreko egunean. Makila betiko lekuan ote dudan begiratzen dut urte guztian zehar erabili ez arren, prest dudala konfirmatzeko. Urduri sartu ohi naiz lotara bezperan, goiz badaezpada, otsaileko lehen larunbata deskantsatuta hasteko. Luardon elkartu aurreko orduetan urduri sumatzen dut gorputza eta lanean burua, jantzi, gosaldu eta elkarri irribarrez eta besarkadaz agurtu arte. Une polita izaten da: patxen iturriko plaza baserritar jantzitako jendez beteta, bakoitza bere makila, zapi eta txapela soinean. Trikitilari eta panderojoleak lehen doinuak joten hasi orduko datoz lehen ieup-ak eta animo hotsak, bagoaz goiko plazara.

Nork bere bizipenak izaten ditu Santa Eskean; ni aitonaz asko gogoratu ohi naiz, eta aurten izango da Joxe Manuel gogoan hartuko duenik. Bakoitzak bere erara biziko du Santa Eskea: familiarekin edo lagunekin, herrian edo baserrian, urteroko tradizio gisa edo lehen aldietako zirrarekin. Baina ezin uka genezake ederra dela kate baten parte izatea, ohitura bat iraunaraztea, iraunarazi nahi izate hutsagatik. Ez naiz tradizioen zaleegia, baina polita da batzuei berrituta eustea, lehen irten ziren horien makilak oraindik kolpatzen jarraitzea, eta etorriko diren horiei bide berriren bat irekitzea.

Herriko elkarteak eta bertso eskola laguntzeko helburuz ateratzen gara kantuan, baina ez bakarrik. Jende anitza elkartzeko lekua da, belaunaldi ugaritako kideak une berezi bat partekatzeko espazio bakarrenetakoa, hitzak eta kulturak bat egiten duten lekua, lagun artea, jan-edana, umorea, oroimena, ohitura. Makilak non dauden begiratu, arropak plantxatu eta jarri dantzan urduritasunak, badator Santa Eskea!

Ohiko formatuan, Mutrikuko kale eta baserriak koplatzeko 4 talde arituko dira kantuan goiz eta arratsalde:

1. taldea:
Koplariak: Imanol Lekunberri, Iñigo Arrizabalaga eta Malen Aldalur.
Goiz eta arratsalde kalean.

2. taldea:
Koplariak: Iban Urdangarin eta Arkaitz Estiballes.
Olatz eta Ibiri bailaretan.

3. taldea:
Koplariak: Alex Idoeta eta Orlando Arreitunandia.
Astigarribia, Olabarrieta eta Laranga bailaretan.

4. taldea:
Koplariak: Iñaki Apalategi eta Xabier Astigarraga.
Goizean Galdua bailaran; arratsaldean Mijoa bailaran.

Bide beretik eta azken ediziotan egin bezela, koroak abesten duen estribiloa ere urteko lemaren esanahira moldatu da, honakoa izango delarik:

Kristo zulotik Arno bitarte
bagatoz santa eskera
aterik ate zabaldu asmoz
kultura eta euskera

.....SANTA ESKEAREN HASIERA.....

EGUNA:	OTSAILAK 4, LARUBATA
ORDUA:	GOIZEKO 09:00
TOKIA:	LUARDO ETXEA

BABES DIKEAREN INGURUKO GALDEKETA



Eusko Jaurlaritzak portuko babes dikea luzatzeko obrak hasteko tramitazioa abiatu zuenetik, herrian gaia purian egon da eta galdeketa egiteko eskatu ere egin zitzaion udalari. Udalak halakorik antolatzeko eskumenik ez duenez, herri-ekimenez antolatuta abenduaren 16an eta 18an 16 urtetik gorako herritarrei honako galderari erantzuteko aukera eskaini zitzaien: Dikea luzatzearen alde al zaude? bai ala ez.

Bozka era anonimoan eta zintzotasun osoz emateko aukera egon zen, kontaketa ere zuzentasun berarekin zaindu dela bermatuta. Kontaketa lanetan Danborzaleak taldeko kideez gain, herriko alderdi ezberdinen partaidetza aktiboa egon zen (EH Bildu, PSE-EE, B+I).

Galdeketan izandako emaitzei buruzko datuak:
- Parte hartzea: 871 herritar.
- Dikea luzatzearen aldeko botoak: 45
- Dikea ez luzatzearen aldeko botoak: 819
- Boto zuriak: 4
- Boto baliogabeak: 3
- Abstentzioa: %81,9

Gauzak horrela, behin eta berriz adierazi duen moduan, Udalak emaitzak jaso eta Eusko Jaurlaritzara bideratuko ditu, herriaren adierazpenari bide emanez.

FRAN GARAGARZA INGALATERRAN



Eibar SD taldean hamarkada bat eman ondoren eta denboraldi bat talderik gabeko lanean jardun ondoren, Fran Garagarza mutrikuarra Ingalaterrako Premier txapelketako Wolverhampton Wanderers Football Club taldean fitxatu du, Wolves izenez ezagunagoa dena. Julen Lopetegi entrenatzaile astuasuarrak lehenagotalde berean fitxatu izanak pisu handia izango zuen fitxaketan. Taldearentzako fitxaketetan eta scouting lanean jardungo du Franek eta Eibarren izan zuen arrakastaren parekoa lortzen badu, izango dugu laster mutrikuarraren lorpenen berri.

Gure Mutriku FT-k, gure Errealak eta gure Athletic-ek igandeetan zer emaitza lortzen duten begiratzen dugunean, aurrerantzean talde berri batek zer emaitza izan duen begiratuko dugu. Ea zer egin duen Franen Wolves taldeak.





OBRAK IRIAGIRREN ETA KANTERATZEN

Legealdi hasierako asmoak ziren arren, ustekabeko pandemiak eta haren ondorengo krisiak atzeratu egin zuten lehenago egitea aurreikusita zeuden bi obra: Iriagirre auzorako irisgarritasuna hobetzekoa bata; Kanteratzeko etxeetarako irisgarritasuna hobetzekoa bestea.

Iriagirre auzoko errepide ondoko eustorma mugitu zenean hura egonkortzeko obra egin zen eta, haren jarraian, egoera txarrean geratu zen urbanizazioa hobetu nahi da orain: Tanatorio paretik eskaileretarainoko espaloia berritu, eskaileren parean igogailua ipini, eta goialdeko lurra egokitu. Obra burututakoan, auzotarren ibilia asko hobetuko da.

Kanteratzen, berriz, Dentici fabrikaren almazena izan zena eraitsi zenean sortu zen espazioa urbanizatuko da, bertara iristeko eskailerak baino ez dituen etxera ailegatzeko bidea egingo da eta almazena egon zen tokian 19 ibilgailurentzako aparkalekua, bi alturatan.

Prestaketa lanak hasita badaude ere, otsailean hasiko dira tokian bertan lanean. Obrak iraungo duen lau hilabeteko aldian auzotarrek eragozpenak eta nahigabeak jasan behar izango badituzte ere, obra bukatutakoan merezi izandakoak izan direla pentsatuko da.



KONTENEDORE MARROIA ZAINTZEN

Urriaren 24an hasi ziren Mankomunitateko bi langile edukiontzi marroitik organikoak ez diren hondakinak ateratzen, helburua izanik biohondakinen edukiontzian geroz eta maiztasun handiagoz agertzen ziren hondakin desegokien azterketa egitea, irtenbideak bilatzeko, eta batez ere, herritarrengan kontzientzia pizteko moduak lantzeko.

Horretarako, Mankomunitateak hainbat puntu kritiko identifikatu ditu herri bakoitzean. Mutrikun puntu kritiko modura hartu ditu aste batean 20 poltsatik gora inpropio detektatu dituzten hondakin-puntuak.

Aste batean zehar udalerri bakoitzeko edukiontzi puntuak aztertu ondoren, eskualdean guztira 3.295 poltsa desegoki aurkitu ditu Mankomunitateak edukiontzi marroian, eta guztira 62 puntu kritiko identifikatu ditu. Mutrikun 282 poltsa desegoki eta 6 puntu kritiko definitu ditu Mankomunitateak.

Datu kezkagarria ikusita, identifikatutako puntu kritiko horietan birziklapen ohituren jarraipen estua egiten ari da Mankomunitatea, eta hala jakinarazi die inguruko bizilagunei etxeetako atarietan jarritako jakinarazpen bidez. Helburua da herritarren inplikazioa areagotzea gaikako bilketari dagokionez, eta elkarlanean murriztea edukiontzi marroian uzten diren hondakin desegokiak, hau da, biohondakinak ez direnak.

Mankomunitatearen helburua da gaikako bilketa sustatzea eta, kasu honetan, biohondakinen birziklapen zuzena areagotzea kalitatezko konposta egin ahal izateko, hondakinak ongi bereizten dituzten herritarren lanari balioa emanaz. Izan ere, edukiontzi marroira bota behar diren hondakinak, batez ere janari soberakinak, konposta egiteko erabiltzen dira, eta organikoan beste zabor mota batzuk nahasten badira, plastikoak adibidez, ondo bereizten dutenen lana zapuzteaz gain, konposta egitea oztopatzen da, edukiontzi horren birziklapena eragotziz.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziotik (GHK) ezarritakoaren arabera, biohondakinetan ager daitezkeen inpropio kopurua ezin da %5 baino gehiago izan, eta Debabarrenan kopuru hori gainditu da azken urtean. Ondorioz, GHK-a aztertzen ari da hondakin organikoak biltzeko kamioiak erabili ordez errefusa biltzekoak bideratzea, izan ere, azken aldian ezin izan baita konpostik egin inpropioak zituzten edukiontzi marroietako bio-hondakinekin, eta erraustegira bideratu behar izan dira. Horrek eragin ekonomiko larria ere izango luke eskualdean, izan ere, jasotzen den hondakin tona bakoitzeko 143 euro ordaintzetik 186 euro ordaintzera pasako litzateke.

Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

zure negoziaren berri
mutrikuar guztiei emateko
KALAPUTXI
aldizkaria@kalaputxi.eus

TRIBIALERAKO GALDERAK

Mutrikuko Tribiala egin nahian, hainbat eta hainbat herritarren ekarpenak jaso dira dagoeneko herriko historia, geografia, ohiturak... jasoaz.

Norbaitek mutrikuar guztiak pentsatzen jartzeko moduko galderarik egin nahi badu, ongi etorriak izango dira guztiak.

Hona bi adibide berri:

Errotondan gaudela, zein auzotara helduko gara **Kanteratze**n zehar bagoaz?

a. Entzuzera.
b. Madalenara.
c. Iriagirrera.
d. Samikollara.

Zer ez duguaurkituko batel batean?

a. Toleta.
b. Sarda.
c. Tangarta.
d. Tosta.

Horiek moduko proposamenen bat egin nahi duenak idatz dezala hauetako helbide batera: euskara@mutriku.eus edo aldizkaria@kalaputxi.eus



ENEKO SAGARMENDI, TXAPELDUN

Eneko Sagarmendi mutrikuarrak eta Leire Esnal zumaiarrak garaipena lortu zuten abenduan Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturiko pilota egokituko II. Espainiako Txapelketako finalean. Enekok bigarren urtez eskuratu du pilota egokituko Espainiako Txapelketa, iaz Xabier Villarrekin batera irabazi baitzuen.

Finala 25-11ko emaitzarekin irabazi zuten Mikel Vegak eta Joseba Altunak osatutako bikotearen aurka. Emaitzak garaipen sendoa lortu zutela erakusten badu ere, partidua gogor joan zela adierazi zuten bikotekide irabazleek.

Sagarmendi oso pozik agertu da Labriten jokatutako finalarekin, hain gogoko duen pilotalekuan jokatzeagatik eta bere mailarik onena erakutsi beharra izan duelako ere bai. Horrekin batera, bikotekidearen lanari ere garrantzia handia eman dio, bikoteka jokatzean, irabazteko bien jokoa izan behar delako maila handikoa.

Espainiako onenaren txapela bigarrenez jantzi ondoren, Eneko urtez urte bere ondoan babesa ematen dauden pertsonei eskerrak eman nahi izan dizkie, eta bigarren garaipen hau bihotzez eskaini, bereziki, amari, amonari eta osabei. Familia ezezik lagun guztiak ere gogoratu ditu eskerrak ematean: Mutrikuko, Zarauzko eta Oreretako lagunei ere dedikatu die garaipena.



MUTRIKUKO TANATORIOA
Iriagirre z/g
Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

www.kalaputxi.eus

KALAPUTXI
Mutrikuko Herri Aldizkarixa



2023rako HARPIDETZAK

Sorreratik izan du Kalaputxik helburu mutrikuar guztien eskuetara ailegatzea. Etxeko buzoian hilero aurkitzen duenak, ezer berezirik egin gabe jasoko du aldizkaria, baina kanpoan bizi den herritarrak ez du aukerarik izango bide horretatik jasotzeko.

Hori dela eta, harpidetza sistema baliatu dezake norbaitek Kalaputxi herritik kanpo jasotzea nahi duenak, izan Gipuzkoako herri batean, izan estatuan, izan Europan, izan mundu zabaleko edozein herritan. Bidalketa gastuen truke, kalaputxikideok arduratuko gara aldizkaria eskatzen den tokiraino bidaltzeaz.

Kalaputxira bidali beharrekoak (aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera edo Ansorregi oinetako dendan sobre batean sartuta:

· NORI BIDALI BEHAR ZAION identifikatzeko datuak:
  Izen-abizenak
  Helbidea
  Posta kodea eta herriaren izena
· NORK ESKATZEN DUEN identifikatzeko datuak:
  Izen-abizenak eta telefonoa (e-posta ere bai, nahi bada).
· ORDAINAGIRIAREN KOPIA.

TARIFAK
(urtean 11 aldizkari bidaltzea)

Hego Euskal Herria eta Espainia, 15,00 euro
Europa, 25 euro
Mundua, 50 euro

Kutxabank ES80 2095 5056 13 1070996938

Laboral Kutxa ES70 3035 0188 91 1880017087

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es



Eguneroko bainulariak

Pedro, Txurruka, Bene, Joan Mari, Dabi, Arantxa, Juantxo, Josu, Ramon, Yolanda, Jon, Mari Sol, Aitor, Gari, Regina, Miren Lore, Josebe, Jabier, Pablo, Xabi, Izaskun, Mari Pilar, Itziar... eta beste asko dira, urte guztian, itsasoan bainua hartu edo igerian egiten dutenak. Bainujantziarekin edo neoprenoa jantzita aitzakiarik gabe egiten dute uretarainoko bidea. Behin uretara iritsitakoan, hankak busti, eta bi aldiz pentsatu gabe, dzanga! Barrura!

Zenbat urte daramatzazue urte guztian bainua hartzen?

Pedro: Ni 1988an hasi nintzen urte guztian bainatzen. Bakarra nintzen orduan, baina laister hasi zen Txurruka ere eta handik gutxira, auzoan bizi den ondarrutarra, Josu. Hasieran hiru ginen. Gero, poliki-poliki, taldea haunditzen joan da eta orain koadrila ederra batzen gara. Hasieran ez geneukan txabolarik ere neguan erropak gorde eta aldatzeko. Orain hori ere badaukagu eta mesede ederra egiten digu, euria edo eguraldi hotza denean batez ere.

Bene: Hamabost edo hamasei urte daramatzat egunero bainatzen. Jubilatu nintzenean hasi nintzen. Lehenengo bakarrik eta gero Joan Mari eta biok. Elkarri lagun eginaz Danborretik Moila Berrira eta handik Dikeraino makina bat buelta egin ditugu. Arantxak beti esaten digu, "*gaur ere Indietako buelta egin dezue*"!

Arantxa: Zazpi urte daramatzat urte guztian bainatzen. Jubilatu nintzenean hasi nintzen... Eguneroko errutinatik irteteko zerbait bilatu nahi nuen eta, ia-ia nahi gabe, udako bainu hartzea luzatzen luzatzen joan nintzen. Ordurako Bene, Pedro eta Joan Mari han izaten ziren egunero uretan eta haien anparoan eta haien animoek lagunduta urte osora luzatu nuen bainua. Igerilari makala naiz baina ez nau beldurtzen ur hotzetara sartzeak.

Ramon: Jubilatu nintzenean hasi nintzen egunero bainua hartzen, orain dela zortzi bat urte gutxi gora behera. Olatua parrastan sartzen denean, sparen efektua egiten du. Mesedea egiten dit eta, gainera, piszinan bainua hartzea debalde da. Ordaindu behar balitz, igual jende gehiago animatuko litzateke.

Zer ematen dizue neguko giro hotz eta desatseginetan bainatzeak?

Ramon: Neguko bainuak gorputza arinduta uzten du. Urteak ere baditugu eta askotan izaten dut belaunetako mina edo baratzean lan egin ondorengo giharretako mina... Uretara sartu eta piszinan pare bat buelta egin ondoren, ondo erlaxatuta ateratzen naiz eta inongo minik gabe... Udako ur epelak ez du efektu berdina egiten, gorputza makalduta uzten du.

Arantxa: Gorputzari sekulako astinaldia ematen dio ur hotzak. Eta ura hotza egon arren, ez da hotzik sentitzen uretan zauden bitartean. Uretatik irtendakoan bai... Eta Frantziar haizea baldin badabil, dutxan azkar-azkar gezatu eta barrura. Ondo lehortu, erropak jantzi eta listo hankak mugitzeko... Burua bakarrik sentitzen dut, gorputza arin-arin... hegan doala ematen du.

Gaixotasunagatik bainua debekatuta eduki duzuenean, faltarik sentitu al duzue?

Bene: Bai... Iaz, abuztuan operatu ninduten bihotzetik. Operatu aurretik esan zidaten kontuz ibiltzeko eta bainatu gabe eman nuen denboraldi bat. Poliki-poliki piszinan buelta batzuk ematen nituen eta monoa kendu nuen... Baina abuztuaren 9an operazioa etorri zen eta bainurik gabe egon nintzen hilabete pasa... Gero, irailean, poliki-poliki hasi nintzen piszinan buelta pare bat eginaz... Orain, jada, berreskuratu dut lehengo erritmoa eta 50 minutu inguru egiten dut igeri egunero.

Dabi: Begiko operazioa egin zidatenean egon nintzen bainurik hartu gabe baina uretara sartzeko gogorik ez zidan kendu. Neguan ez da harritzekoa izaten katarroa edo harrapatzea, baina egun batzuk bainatu gabe pasa eta berriz ere listo uretarako. Egun batzuetan bainurik gabe egoteak ez dit uretarako gogorik kentzen.

Arantxa: Bihotzeko arazoak izan nituen eta bainua hartzea debekatu egin zidaten bihotza gelditu egiten zitzaidalako. 2018ko urrian utzi nuen bainua eta azaroan operatu ninduten, *markapasosa* jarri zidaten. Nire kezka zen ea gero bainua hartzeko arazorik izango nuen... eta medikuari bisita bakoitzean galdetzen nion ea noiz emango zidan baimena bainua hartzeko. Abenduaren 19an





egin nion azkeneko bisita medikuari eta berriz ere galdetu egin nion ea bainua har nezakeen... Berak erantzun zidan: "*bai, bai, hartu bainua eta egin nahi duzuna, makina ez da geldituko eta*".

Bainuaren ondorengo berriketa aldiak zertan laguntzen dizue?

Ramon: Jende asko elkartzen garenean nahaste-borraste handia sortzen da eta umorez ibiltzen gera. Oraintxe futbol kontuak, oraintxe itsasoko kontuak, oraintxe gaztetako kontuak... Kanpoko jendea ere hurbiltzen zaigu galdezka, ea ura zelakoa dagoen... Nik beti epela erantzuten diet, normalean dagoena baino hiru edo lau gradu gehiago dagoela esaten diet. Egia esan, behin uretara sartuta ez da erraza jakiten zenbateko tenperatura daukan; egunero antzerakoa. Batzuetan irudipena izaten da hotzago ote dagoen edo. Neguan gaba hotza egiten duenean eta marea behera ordu askotan egoten denean, orduan bai, orduan igartzen da diferentzia. Uraren tenperaturak ere hizpide ugari ematen digu... Esan eta esan egiten dugu baina oraindik ez dugu jarri kartela kanpoan... Uraren tenperatura erreala eta uraren tenperatura Ramonena... Urte berria bukatzerako jarriko dugu.

Arantxa: Eguna oker hasi denean ere, bizitzan aldrebestuta dagoena ahaztu eta kontu berriekin distraitzeko aukera ematen digu bainu ondorengo berriketa aldiak. Ramonen txakurra Aske baloiarekin entrenatzeko ariketek ere laguntzen digute... Taldeko beste bat bihurtu zaigu. Hitz egin ez du hitz egiten baina asko daki. Uretan sartzeko gogorik ez badauka baloia kantina aldera eramaten du, bainua hartzeko gogoa badauka dutxa inguruan uzten du baloia... eta guri beste hizpide bat jartzen digu.

Zer eskatzen diozue urte berriari?

Ramon: Beti komentatzen dugu bazkari bat edo egin behar dugula eguneroko bainulariok. Ea aurten antolatu eta egiten dugun. Hastea izaten da zailena. Ohiturak horrelaxe sortzen dira.

Arantxa: Gabiltzanok oraintxe bezelaxe segitzea eta osasuna tarteko falta direnak ere laster gure artera etortzeko moduan izatea... Eta hego haizeak jotzen duen bakoitzean txabola berrietatik iristen zaigun hondarra garbitzea. Udazken guztia daramagu hondarra kendu ezinik... Hego haizeak zabalera guztia, dutxak, eskilarak, piszinarako arranpla dena betetzen du hondarrez. Egunero geuk erabiltzen dugun ingurua garbitzen dugu baina hurrengo egunerako berriz ere hondarrez betetzen zaigu. Uda arte zain egon gabe, lehenbailehen txaboletako hondarra kentzea eskatzen diogu urte berrian udalari.

Eta eguneroko bainua aitzakia hartuta gure artera etorri nahi duenak ateak zabalik dauzka.







LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Urazemendi mutrikuarrek Urazandi debarrek

Deba ibaixaren ezkerraldian egon zan Urazemendi edo Urazandi etxe historikua. Mutrikuko etxe hori XX. gizaldixaren amaieran desagertu arren, izenek bizirik segitzen deue, eta gaur egun auzo baten izena ere bada. Ibaixak (urak) izendapen bikoitza ekarri deu: debarrek Urazandi esaten dixue eta mutrikuarrek Urazemendi.

Norberaren herriko leku-izenek pisu sinboliko haundixa daukate, mugarrixak dira gure geografixan. Etxiak, mendixak, haitzak, errekak... Mutrikun badago izen bat bereziki ederra gertatzen zatena: *Urazemendi*.

Sasoi baten etxe-izena baiño ez zan; aurrerago, etxiaren ingurua ere izentatzen hasi zan, eta azken hamarkadetan biztanle entidadia izatera aillegatu da.

Deba ibaixaren aldameneko etxe harek bi izen nagusi euki zitxuan. Mutrikuarrek *Urazemeti* (*Urazemendi*) izena esaten zixuen eta debarrek *Urazandi*. Gaur egun ere, zorionez, bi izenak bizirik doz. Esanahi argixa daukate gaiñera. Lehelenguak (Uraz+emeti) "uraz hemengo aldekua" esanahixa dauka, uraren alde hontara zaualako etxia, Mutrikun. Bigarren izenak, berriz, (Uraz+(h)andi) "uraz handikua"; uraz beste aldian zaualako debarrentzat.

Euskal Herrixan ohikua izan da "ur(a)" elementua erabiltzia ibaixak izentatzeko (Urederra, Urzabal), baitxa erderaz ere (Ambasaguas, Entrambasaguas).

Bilboko *Urazurrutia* auzo-izena ere argixa da: 'uraz+urruti(a)'. 1583. urterako agertzen da dokumentaziuan (*uraç urutia*). Izenaren "urak" Ibaizabal esan nahi deu. Bitxia bada ere, 1617. urtian *allende la puente* izenez agertzen zaku.

Baiña, hori ez da talde hortako izen bakarra, beste asko ere badoz Euskal Herrixan: *Urezarantza* auzoa (Gorlizen) 'urez+(h)arantz(a)' eta Urazandi izeneko baserri eta lekuak (Zumarragan, Azpeitxixan, Elgoibarren, Ordizian, Galdakaon, Morgan, Erandixon, Okendon...).

Holako toki-izenei kokapen-toponimuak esaten zakue ("topónimos situacionales"). Aitxatu ditxugun kasu guztiek uraren beste aldian kokatzen gaitxue: urez harantza (*Urezarantza*), uraz urruti (*Urazurrutia*), uraz handiko aldean (*Urazandi*). Baiña Mutrikun, beste tokixetan ez bezela, bi izen daukaguz, bi ikuspuntu.

Lehen aitxamenak eta arriolatarrak

Itxura danez XV. gizaldixaren bigarren zatixan eraiki zeuen *Urazemendi* edo *Urazandi* torretxia.

Arriola famelixakuek sortu zeuen Deba ibaixaren ondoko etxe hori; botere haundiko famelixia zan, bai ekonomikoki, bai politikoki: artilliaren garraiuari lotuta agertzen zakuz, baliak harrapatzen, baitxa Debako alkate eginkizunetan ere.



Azken baten, errixua lehen maillako "autopistia" zan salgaixak edo jeneruak karriatzeko eta haura primerako tokixa zan barkuen juan--etorrixak bertatik bertara kontrolatzeko.

XVI. eta XVII. gizaldixetan *Urazandi* edo *Urazemeti* torretxeko jabiek bizimodua Deba aldian egitxen zeuen. Debara begira bizitziak sarritxan *Urazandi* (*Uraçandi*) izendapena erabiltzia ekartzen zoan. Eta, kasu batzuetan, *Urazandi* izena beuren izen-abizenen aldamenian erabiltzen zeuen.

Hiru izen

Dokumentuetan modu askotara agertzen da etxia, hona hemen horretako batzuk: Huraçandi (1518), Urazandi (1550), Urazandia (1565), Uras-andi (1862), Urzandi (1869).

Izen horrek batez ere Debako eskribau eta notarioen dokumentaziuan azaltzen dira. Mutriku aldera baguaz, beste izen honek topauko ditxugu: torre de Uraz emeti (1618), torre de Uraz Emetia (1620), torre del passaje de Urazemeti (1649), Huraz emetia (1718), Uras-emeti (1780), Urasameti (1833), Uras-emetic (1893), Uasameti (1893).

Baiña, *Urazemeti* eta *Urazandi* izenez gain, etxiak hirugarren izen bat ere euki zoan, guregana erderaz baiño aillegatu ez dana: *torre del Pasaje* (1518) edo *casa del pasaje* (1525). Kontuan hartu bihar degu gizaldi luzez ontziz baiño ezin zeikela pasatu ibaixa, harik eta 1866xan zubixa eraiki zeuen arte. Etxe hortan egon zan barkua hartzeko enbarkaderua (*barco del pasaje*). Pasaia herri-izenak jatorri hori dauka (*Pasajes*, erderaz).

Urazandi etxekuak eta Deban lurperatzen

Urazemendi eta inguruko etxietan jaixotakuak Mutrikuko parrokixan bataiatzen zitxuen, baiña, harrigarrixa bada ere, hildakuak Deban lurperatzen zitxuen. Horren lekukotasun asko doz, aspalditxik gaiñera.

Esate baterako, 1518ko auzi baten, hau azaldu zoan Juan Martinez de Yçeta pilotu debarrak: "*ha oydo dezir en la dicha villa de Deva en todo su tiempo que tres casas que son en la juridiçion de Motrico que se llaman Lasao e Buztinaga e Huraçandi tienen sus enterrorios en la dicha villa de Deva*".

Beste hau, berriz, oraintsukua da: 1893ko urrixaren 25ian bi urteko umetxua hil zan Mutrikuko *Urasemetic* baserrixan, Petra Josefa de Egaña zakon izena. Haura ere Debara eruan zeuen lurperatzera. Honela eman zoan horren berri Mutrikuko parrokuak heriotza-agirixan: "*mandé, que se condujera al limite de esta parroquia, al puente de Deva,*



para que se hiciera cargo el Cabildo de Deva, y dieran sepultura eclesiástica en el Campo Santo de la referida villa".

Debara begira: auzokidiek desanexiua eskatu zeuenekua

Bada gertaera bat ederki erakusten doana Deba ibaitxik hurre bizi ziran mutrikuarrek Deba herrirako zakaen joeria. 1961. urtiaren amaieran Mutrikuko 25 familixak baimena eskatu zixuen Debako udalari Urazemendi auzunia Debako udalerriara batzeko: "*al objeto de solicitar del Gobierno la segregación de dicho barrio del término de Motrico y su agregación al de esta villa de Deva*".

Segregaziorako dokumentaziuan, ingurua "Carretera de Motrico" izentatzen da batzuetan eta "barrio de Uras-emendik" beste batzuetan.

Mutrikuko udalak eskaera horren kontra egin zoan eta Gipuzkoako Aldundixak errazoia eman zion.

Debako udaleko aktetan anexiorako errazoiak agertzen dira: "*a fin de que armonice con la realidad tangible y patente de su vinculación total en todos los ordenes a la villa de Deva*".

Urazemendiko barkua eta 1989ko sutia

1989ko abenduaren 16ko gabian Urazemendi etxiaren inguruko mendixek su hartu zeuen, zoritxarrez sugarrek etxiaren teillatua harrapatu eta handik gitxira oso-osorik kiskaldu zeuen etxia.

Etxe hartatik sarrerako ateburua baiño ez da gordetzen. Izan ere, bertan, harrixan landutako nao dotoria egon zan, XVI. gizaldi ingurukua. Gaur egun Donostiako Untzi Museuan ikusi leike behe-erliebe eder hori.

Urazandiberri etxia

Urazemendi etxia erre eta gero, bertakuek etxe berrixa eraikitzia pentsatu zeuen. Urazemendi etxia baiño gorago, Buztiñaga baserrirako bidian gora eginda, etxiaren lursail bat bereizi edo segregatu eta etxe berrixa eraiki zeuen. 1992. urteko Gabon bezperan biztu zeuen lehelengo aldiz sukaldeko sua. Eibarko Jabetza Erregistruan "Urasandi berri" izenez dago inskribauta. Mutrikuko mapetan ere izen horrekin agertzen da etxe hori: *Urasandiberri* (1999), *Urazandiberri* (2010). Izen hori aukeratzeko errazoia sinplea da: Urazemendiko mutrikuarrak izan arren, Deba aldian egitxen zeuen bizimodua (hango plazara eta eleizara juaten ziran), eta jakiña, azkenerako, Deban nagusi dan *Urazandi* izenaren alde egin zeuen.

Debarrek izen bat eta mutrikuarrek beste bat?

Historialari batek baiño gehixok idatzi izan deu Arriola famelixaren inguruan edo ateburuko barkua dala-eta. Guzti-guztiek *Urasandi*, *Urasandia* eta *Urazandi* formak erabili izan ditxue, erabilitxako dokumentaziuan izen horrek diralako nagusi XVI. eta XVII. gizaldixetan.

Esan degun bezela, *Urazemendi* izenak bertan egondako etxe historikua ez ezik ingurua izendatzeko ere erabiltzen da. Paraje hori Debatik hurre dauanez, eta bertakuek Debarako joeria daukatenez, oso zabalduta dago gaur egun *Urazandi* izena. Dana dela, oraindik ere, bada kontzientzia mutrikuarren artian auzuaren betiko izena *Urazemendi* edo *Urazamendi* dala.

Izen-dantzaren erakusgarri, XIX. gizaldixaren amaierako adibide bat ekarriko degu. 1893ko urrixaren 7xan Gregoria Egaña izeneko umia hil zan Urazemendi etxian eta Deban lurperatu zeuen. "*Caseria Urasandi*" jaso zoan idatziz Debako parrokuak, "*caseria de Uras-emetic*" Mutrikuko parrokuak eta "*Caseria Uasameti*" Mutrikuko bake-epaitegiko langilliak.

Normala da Debakuek *Urazandi* erabiltzea, oraindik ere izen gardena edo motibatua dalako hiztunentzat (beste era batera esanda ondotxo ezagutzen deuela esanahixa). Bi izendapen horrek herri-ondaria dira, eta bixak dira zaindu eta erabili biharrekoak, baiña bakoitza bere eremuan.

2009ko garagarrillaren 2xan Mutrikuko udalak "Urazamendik auzoa" Mutrikuko auzuen izendegixan sartzia onartu zoan. Ahoz, mutrikuar gehixenek Urazemendi eta Urazamendi izenak erabiltzen ditxue. Uste det izen egokixak dirala auzo horrentzat, izan ere *Urazamendik* izenak ahoskera arazoak sortzen ditxu amaierako *k* horrengaitxik (izena deklinatzian, esaterako). Gaiñera, tradiziozko aldaera historikotik hurre samar dago (Urazemeti = Urazemendi).

Itsasertzetik, Debatik Mutrikura dijuan bidia 1863an egin zeuen. Ordura arte kostaldian ez zauan biderik Mutrikura juateko, eta ezinbestian Larangamendirako bide malkartsutik gora igotzia baiño ez zauan. Beraz, Urazemendi etxia bidiaren amaieria izan zan gizaldi askuan. Amaieria edo hasieria, nundik begiratzen dan. Edozela ere pasoko tokixa zan haura, zubixa egin aurretik, bertara hurreratzen ziralako Deba aldera juateko barkua hartu bihar zeuenak. Illundu ezkero, errixua pasau ezinda gelditzen ziranek gaba pasatzeko modua eukitzeko bentia edo ostatua jartzeko eskaeria egin zeuen 1772. urtian: "*la mucha necesidad que havia de que (...) hubiese alguna providencia de camas, y vituallas para los pasageros, que llegando a aquel parage despues de anochecido, y otras muchas horas, se encontravan con la imposibilidad de no poder atravesar el Rio a causa de que el barco del pasage se halla continuamente a la otra vanda*". Eskaera hartan ere, garbi agertzen dira bi izenak: "*casa nombrada en ella [Mutriku] Urazemeti, y en la de Deva Urazandia*".

Josu Larrañaga Arrieta

Eneko Erraiz Amado

Kirola eta kazetaritza uztartuz

Sare sozialetan murgildurik dabilen mutrikuarra dugu Eneko Erraiz Amado (2004).

Kementsu, sormenez eta ilusioz abiatu zuen kazetaritza ibilbidea, etorkizunean kirol kazetaria izateko asmoz.



Aspaldi hontan podcasting-ean ikusi zaitugu esatari lanetan.

Bai, horrela da. Txikitatik ibili naiz kirolari lotutako edukiak sortzen, eta pandemia iritsi zenean Mutrikuko lagun batekin batera proiektu bat hastea erabaki nuen. Hasiera batean Web orrialde bat zena podcast bihurtu zen, baina denbora faltagatik bertan behera utzi behar izan genuen. 2021eko uztailean, berriz, Joventut de Badalonari (jarraitzaile naizen saskibaloi kluba) buruzko programa bat sortzea erabaki nuen bi kazetari kataluniarren laguntzaz. Biak oso ongi ezagutzen nituen, niretzat anaiak dira, eta talde giroa izugarria izan da denbora honetan. Astero bi podcast grabatzen ditugu, eta urte eta erdi daramagu lanean. Baliabideak handituz joan gara eta dagoeneko argazkilari profesional baten eta narratzaile profesional baten laguntza dugu. Espainiako saskibaloiari buruzko bigarren programarik entzunena izan zen pasa den urtean, eta hainbat jokalari eta kazetari ospetsu pasa dira iada gure mikrofonoetatik. Ohore izugarria da niretzat.

Zerk bultzatu zaitu bide honetara? Lana ala zaletasuna da?

Biak esatea irtenbide errazena dela uste dudanez, zaletasuna erantzungo dut. Egia da etorkizunean nire lana horrelako proiektuetatik bideratzea nahi dudala, baina pasioz eginiko lana da. Klubarekiko dugun zaletasuna eta maitasuna izugarria da. Jarraitzaile hutsak gara azken finean. Gauza profesional, zaindu eta interesgarriak egiten saiatzen gara, klubari buruzko hainbat eduki sortuz (podcasta, aldizkaria, zuzeneko narrazioak, aktibitatea sare sozialetan…). Gure publikoa agian itxia dela pentsa dezakezue, azken finean saskibaloia eta konkretuki Joventut interesatzen ez zaionari horrelako produkturik ez duelako kontsumituko, ordea, Espainia osoan dauden zale amorratuenekin konektatu dugu. Hori da, gure arrakastaren giltza. Gai oso zehatza da, baina Joventuteko jarraitzaile denak horrelako lanei maitasun eta feedback handia ematen dio. Alegia, jendeari egunak poztea da gure helburua, baita klubaren berri guztiei helaraztea. Horrela, lana errazagoa bihurtzen da eta pozik egiten dugu. Zaletasuna da, noski.

Sare sozialak erabiltzen dituzu horretarako? Non jarrai zaitzakegu?

Gaur egun horrelako proiektu bat aurrera eramateko sare sozialak ezinbestekoak dira. Are gehiago jarraitzaile gehienen jatorria kataluniarra denean. Horren harira aipatu beharra daukat Joventuten "urrezko garaia" 90. hamarkadan izan zela. Garai hartan, Espainia osoko hainbat gazte kluba jarraitzen hasi zen, horietako bat nire aita. Gure iniziatiba gehienbat Badalonatik kanpo bizi diren pertsonek eskertu digute, kluba hurbildu diegulako. Zure galderari erantzunez, hainbat dira darabiltzagun bideak: instagrameko kontua dugu (@sobrelabocina1930), Twitterrekoa, azken hau oso erabilia (@sobrelabocina), eta baita ere Twitch-eko kanala, non hainbat zuzeneko egiten dugun. Bestalde, agentzia baten bitartez bidaia guztien gastuak estaltzea lortu genuen. Horrela, taldearekin bidaiatzeko aukera dugu kanpoan dituzten lehiak zuzenean ikusi, eta Twitch bitartez bertatik zuzeneko narrazio bat eginez. Halere, gure sare sozial garrantzitsuenak Ivoox eta Spotify dira, musika eta podcastak entzuteko plataformak. Bertan, astean bi programa igotzen ditugu, eta hainbat entzulek jarraitzen gaitu. Sobre La Bocina du izena programak. Bestalde, arropa-denda, jatetxe, proiektu sozial edota bidaia agentziek babesten dituzte gure plataformak diruz lagunduz. Egiten dugun guzti hau ez litzateke posible izango sare sozialik gabe.

Oker ez bagabiltza, kazetaritza ikasketak egiten ari zara. Nola ekin zenion bide horri?

Bai, Leioan nabil kazetaritza ikasten. Hiru mutrikuar ditut pisukide, bizi guztiko lagunak. Eta, egia esan, oso gustura nago. Etapa berria da niretzat, erronka zailak ditut aurrean, baina gogotsu heldu diot. Unibertsitatea eta aipatutako proiektua, biak batera, aurrera eramatea zaila den arren, dena ondo antolatzen eta aurrera ateratzen saiatzen naiz. Bi arlo potolo horiek saskibaloiko entrenamendu eta partiduekin uztartu behar ditut, eta aisialdirako ez zait denbora tarte handirik gelditzen. Askotan klaseetan ordenadorea hartu eta kudeaketak egiten ditut: emailak gora eta behera, artikuluak idatzi, programetako gidoiak prestatu, etorkizuneko proiektu eta ekintzei forma eman, inprentarekin edota plataformekin arazoak konpondu… Alegia, asko betetzen nau horrek guztiak. Proiektuaren partaide eta zaleen arteko harremana oso ederra da. Jasotzen ditudan feedback guztiek denbora



galtzen ez nagoela berresten didate. Hain zuzen ere, ikasketak amaitzean horrelako proiektu eta ekintzetatik bizitzea da nire helburua. Karrera egin bitartean etorkizunean egin nahi dudana egiten nabil. Esperientzia hori guztia oso baliagarria izango da, ziur nago.

Zer duzu gustuko kazetaritzatik?

Jendea hunkitzea gehinbat, eta poztea, eta era berean beraien bizitzen zati izatea. Askok esaten digute egun luze baten ondoren, etxera iritsi-eta gu entzutean edota aldizkarian irakurtzean eguna alaitzeko gaitasuna dugula, eta hori benetan pozgarria da guretzat. Kazetaritzaren inguruan topiko asko entzun dut, baina horiek apurtzeko gaude. Ideia berritzaileekin gatoz indarrez, eta teknologia berriak maneiatzen trebeak gara. Ordea, egia da komunikabide tradizionaletan kontinuismo handia ematen dela, eta oso zaila dela dinamika horiek haustea, baina azkenaldian kazetari gazte edota eduki sortzaileek zera erakutsi digute: hainbat bide daudela kazetaritza egiteko eta produktu harrigarriak sortzeko.

Eta, hausnarketa eginez, kazetaritzaren hutsuneak aipatuko zeniguke?

Askok dioten bezala, kazetaritza ikasketak ez daude egoki bideratuta. Gazteei ematen dizkieten aukerak ere ez dira nahikoa. Komunikatzaile trebeak eta sortzaileak diren hainbat lagun ditut, ikasketak bukatu-eta lanean hasteko aukera bat bera ere izan ez dutenak. Beno, edota gaizki ordaindutako lanpostuak izan dituztenak. Nire ustez, produktu tradizionalekin hausteko eta aurrerapausoak egiteko beldurrak hainbat kazetariren hegoak mozten ditu. Baina borrokatzen jarraitu behar dugu. Amaitzeko, uste dut interes asko daudela eta manipulazio handiegia. Gure helburua egia kontatzea da, baina askok egia manipulatu edota hutsetik asmatzen dute. Zintzoak eta profesionalak izan behar gara, beti ere jendeak nahi duen produktuak eginez, baina ez beti entzun nahi dutena esanez. Errealitatea kontatu eta kritikatu behar dena argumentuen bitartez azaldu behar dugu. Eta produktu ezberdinak eskaintzeko gai izan behar gara, beti ere jendearen zaletasunak oinarri hartuz eta teknologia berriei etekina ateraz.

Zeintzuk dira zure asmoak?

Kirolaren inguruko albisteak kontatzen bizi nahiko nuke. Hala ere, beste hainbat arlo interesatzen zaizkit, literatura, musika edota psikologia, esaterako, eta horiei buruz aritzea ere gustatuko litzaidake. Nire ametsa, betidanik, NBAko partidu bat edota derbia kontatzea izan da, alegia, egunen batean profesionalki lortzea espero dut. Bestalde, idaztea ere gustuko dut, eta kirol aldizkari edota egunkari batean lan egitea ere nire helburuetako bat da. Idazteaz gain, gure maketatzailearekin eta argazkilariarekin lan egitea aberasgarria izan da, asko ikasi dut beraiekin. Laburbilduz, kirol kazetaria izan nahiko nuke.

Aurkezten edota idazten ere iaioa zarela jakin dugu…

Ikusten dudan bezala familiakoengan harrotasuna eragin du horrek. Bai, autoestima altua dudanez egia dela esango nizuke. Beti izan dut gustuko jendearen aurrean hitz egitea, eta dakizkidan gauzak azaltzea, beti ere, jendea entretenitzeko asmoz. Ikastolako eta institutuko aurkezpenetan lasai egoten nintzen. Aurrean aipatu bezala, idaztea ere oso gustuko dut; kirolari buruzko idatziak publiko egiten ditut, eta nire sentimenduei buruzkoak arlo pribatuan zabaltzen ditut. Gabonetako oparien artean beti daude liburuak, idatziak eta horrelakoak. Euskaraz asko idatzi eta hizketan egiten dudan arren, nire proiektuak erdaraz plazaratzen ditut. Dena den, ingelesez ere gehiago idaztea gustatuko litzaidake, eta katalanez ere nahiko ongi moldatzen naiz.

Aipatzeko…

Lagun edota ezagunen proiektuak bultzatzearen aldekoa naiz. Zaila da bidea egitea; denbora eta esfortzu handia eskatzen baitu honek guztiak: bultzada txiki batek eragin handia izan dezake. Sareetan feedback-a emateak, mezu positiboren bat idazteak edota produkturen bat erosteak beti poztuko du proiektua aurrera ateratzen ari den pertsona. Jendearen iniziatiba gehiago baloratu behar dugu. Horretaz gain, podcast edota edukiak sortzen hasi berri den edo hasteko ideia duen edozein pertsonari laguntzeko prest nago: argi utzi nahi du hori, ez baita bide erraza. Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkizuet nire proiektua azaltzeko aukera honegatik, eta urteetan zehar egindako lanarengatik.



ELKARTEAK IRUDI BERRIA ETA WEB BERRIA AURKEZTU DITU

Bi urteko pandemiak, TicketBai martxan jartzeko egin beharreko inbertsioek, online erosketek eta egungo krisi ekonomiak gogor jo ditu herriko establezimenduak, baina egoera txarrari aurpegi ona jarri eta aro berri honi indarberrituta heltzeko ideiarekin aurkeztu du elkarteak bere irudi berria.

Azken urteetako logotipoa aldatu du **BERTAN Mutrikuko Merkatarien eta Ostalarien Elkartea**k. Urteetan erabili izan duten irudi zaharra alde batera utzi eta aro berri baten hasierari ekin diote 20. urteurrenean. Azken urteetako egoera ez da batere erraza izaten ari komertzio txikiarentzat eta Mutrikuko establezimenduak ez dira salbuespen.

Elkartekideak jakitun dira gaur egun oso zaila dela online erosketen aurka egitea. Baina azken bi urteek aurretik zuten egoera kritikoa zaildu dute, artean pandemia, ticket bai eta egungo krisi ekonomikoa pairatuz.

Egoera zailetan besoak jaitsi edo aurrera pausu bat egitea besterik ez dagoela ulertuta, BERTAN elkarteak aurrera egin eta indarrak ateratzeko ahalegina egin du, nahiz eta azken urteetan elkartekideen kopurua jaitsi zaien (jubilazioak, pandemian itxitako komertzioak eta abar).

Logotipoarekin batera, **mutrikubertan.eus** webgune berria aurkeztu dute. Webguneak komertzioen inguruko informazioa jasotzen du (helbideak, telefonoak, geolokalizazioa, ordutegiak) eta baita bilatzaile bat, beharrezko hori nork eskaintzen duen errazteko. Horretaz gain, bezeroek komertzioen inguruko iruzkin eta balorazioak utzi ahal izango dituzte. Azkenik, elkartearen inguruko promozio, berri eta informazio interesgarriarekin elikatuko da euren blog-a.

Hala ere, elkartetik azpimarratu nahi izan dute, irudi aldaketa hau ez dela itxura aldaketa hutsa izango, barne dinamikak eta herriarekiko aktibismo handiagoa ekarriko duela berekin. Esaterako, udazkeneko Black Friday egunerako promozio oso berezi bat aurkeztuko zuten, gabonetako zozketa ere egin dute, gabonetako kanpaina, eta, urtero bezala, Udalarekin batera herriko gabonetako argien instalazioa.

Gaur, Mutrikuko 35 establezimenduk osatzen dute elkartea:

· ADATS ILEAPAINDEGIA · ALAZNE OPTIKA AUDIOLOGIA · ALBARO DENDA · ALBOKA OKINDEGI ETA KAFETEGIA · AMETZA TABERNA · ANSORREGI OINETAKOAK · · APAIN ESTETIKA ZENTROA · APARRA ARROPA DENDA · ASTIGARRAGA ANAIAK · · BAR PUERTO · BARE BARE TABERNA · · BIGARA FRUTA DENDA · BUCEO EUSKADI · · CAMPING GALDONA · EKOAMALUR BELARDENDA · GARAIA ARROPA DENDA · · GOTZON ARRANDEGIA · GOXART · · IPARRAGIRRE ALTZARIAK · IRIPE ELEKTRA SALMENTA · ISLADA FISIOTERAPIA · · JOSEBA I. ELEZGARAI MASAJE ETA OSTEOPATIA · LON APRAIZ BOTIKA · · LORETXU TABERNA · MAPFRE MUTRIKU · · MADARIAGA PAPERDENDA · MAIDER PINTO ESTETIKA ETA TERAPIA NATURALAK · MANEIRO LENTZERIA · MGS ASEGURUAK · PERRAS ARRAINDEGIA · · POTERO DENDA · SABINA · TXALAPARTA OKINDEGI ETA KAFETEGIA · TXIMAK ILEAPAINDEGIA · ZELAIETA JATETXEA ·

zure alboan BERTAN
Mutrikuko Merkatarien Elkartea



zergatik Mutrikun erosi?

Herriaren identitatea
Mutrikuko establezimenduek kale, auzo eta herriaren identitatea sortzen dutelako; kaleei argia eta kolorea emanez, herriari bizitza emanez.

Lanpostuak
Herrian erosita herritarren zuzeneko nahiz zeharkako lanpostuak sortu eta bermatzen ariko zarelako.

Bizilagunak
Establezimenduetako langileak zure bizilagunak direlako. Eneritzen ama edo Mikelen aita, Mari Pazen alaba edo Jose Ramonen semea.

Zergak herrian
Mutrikuko establezimenduek zergak herrian eta gure herrialdean ordaintzen dituztelako eta ez atzerrian. Gure hezkuntza eta osasun sistemara, jolas parke eta herriko beharretara bideratzen dira beraien zergak, eta ez atzerrira.

Topalekuak
Mutrikuko establezimenduak topaleku direlako. Lagunekin, ezagunekin edo aspaldi ikusi ez duzun horrekin topatu eta elkartzeko lekuak, herritar sentitzeko guneak.

Jasangarria
Herrian erosita jasangarritasunaren aldeko apustua egiten duzulako. Autoak alde batera utzita, munduaren biziraupenaren aldeko konpromezua hartzen duzu, ondoren etorriko direnei mundu hobea uzteko.





ZORIONAGURRAKZORION



BAPTISTE eta GAEL

Zorionak Baptiste zure 6. urteurrenean eta baita ere Zorionak Gael zure 3. urteurrenean.
Zuekin oporrak Mutrikun pasatu ditugu eta dagoeneko zuek Belgikan egongo zarete baina beti gure bihotzean.
Amona Jose, amona Euge eta atxitxe Joxemari.



ZURIÑE

Saltsa pixkat jartzia zan asmua ta zu bezelako saltsera batekin ezin ahaztu. Urtarrilak 20xan gure artian nahi zatxugu, esku artian kalimotxo batekin bada hobe. Eztakazu aitzakirik! Asko eta aske zatxugu matxe!



AITZIBER

Eskerrik asko zure txikitasunian irribarre handi bat eskaintziarren beti. Urtarrilak 17xan zurekin izango gea, betikuak eta betiko lekuan. Zuk karteria prest euki, beste dana gure kontu! Asko eta aske zatxugu matxe!



KATTALIN

Zorionak Kattalin eta pastela neretzat! Matxe-matxe Ekiak.



LIER

Zorionak txapeldun! Dauaneko 7 urte! Asko matxe zaitxugu! Muxu bat aita, ama eta Ekian partez!!



JON

ZORIONAK ATXITXE!
ASKO MAITXE ZAITXUGU! ONENA ZEA! MATXO HAUNDI BAT! EINAR, MADDI, ENEKO eta ANDER



UDANE

Zorionak Maittia!
Dagoeneko 6 urte! Patxo handi bat etxekuen partez eta bereziki Argiren partez!



IONE

Zorionak eta muxu handi bat Asturiasetik!



UR eta JON

Abenduan urte bat eta otsailean 9urte egiten dituzuenez, zorionak bioi etxeko guztion partez!!



EKAI

Ongi etorri Ekai!
Alaitasuna eta zoriontasuna ekarri diguzu urteko azken hilabetean.



JUNE

Zorionak 6 urte handi bete ditxuzulako! Muxu handi bat danon partez!



IONE

Zorionak!! Ondo pasau zure eguna, matxo handi bat famili osuan partez!



LORE

Zorionak! Dagoeneko 7 urte! Muxu potolo bat etxeko danon partez!



MADDI

Danon partetik ZORIONAK MADDI geure neskari!



KATTALIN

Zorionak gure etxeko damatxoari.
Izugarri maitxe zaitxugu!!!



LORE eta ERROKA

A ze parea, karakola eta barea! Zorionak Lore eta Atxona Erroka!



KATTALIN

Zorionak! Ondo pasau zeure eguna!

AGURNE, ANDER eta ANE

Zorionak Agurne eta Ander.
Pozik hartzen dugu ANE gure artean!



Argazki Zaharrak



Imanol Beristain Piker eta Benita Bernedo Lariz seme-alabekin zilarrezko ezkontza-ezteietan. Donostian, Alde zaharreko Santa Maria elizako eskailaretan.

Behetik hasita: Ander, Noemi, Imanol, Karle, Fatima, Amaia, Arantxa, Itziar, Jabier, Joxe Mari eta Koldo.

1960. urte inguruan.





2023ko farmazia guardiak

Egunak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
Urtarrila	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	①	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	②	2	3	3
Otsaila	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	①	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	②	2	3	3			

Eguneko farmazia-guardia zerbitzua (09:00 - 22:00)

1	Hiart Burgoa		Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi		Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	Lon Apraiz	① Zapatu goizetan	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	Lasuen - Elezgarai	② Zapatu goizetan	Mutriku	Txurruka tenienteen etorbidea 3	943 19 50 26

Gaueko farmazia-guardia zerbitzua (22:00 - 09:00)

	Cristina Sanchez Castaño		Eibar	Julian Etxeberria kalea 7	943 20 30 52

urtarrilak 26, osteguna, 18:00
Zabiel ganbaran
Ikastaroa: Izei ukendu baltsamikoa

urtarrilak 28, larunbata, 18:15
Turismo bulegoan
Bisita gidatua: Mutriku marinela

otsailak 2 eta 9, osteguna, 18:00-20:00
Luardon
Ikastaroa: Dantza eta mugimendu adierazkorra

Otsailak 17, 18 eta 20
INAUTERIAK

otsailak 22, asteazkena, 18:00
Zabielen
Ikastaroa:
Emakumeak eta zahartzaroa: hausnarketa feministak

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393
otsaileko aldizkarian
argitaratzeko
otsailaren 10erako
bidali zuen mezuak

ODOLA EMATEA
otsailak 17
apirilak 28 · ekainak 23 · abuztuak 18 ·
· urriak 20 · abenduak 15
17:00etatik 20:30ak arte
anbulatorioan
Gipuzkoako Odol Emaileak

MENDI IRTEERAK
otsailak 12
Sagardotegia
martxoak 19
Jaunsarats-IREBER-Beruete
apirilak 2
Lizarrusti gaina-GANBO- Amezketa
maiatzak 7
Angulo gaina-Orduña gaina (Uren banalerroa)
ekainak 16, 17, 18
Palentziako mendiak
uztailak 9
Orduña gaina-Altube gaina (Uren banalerroa)
irailak 10
Ezkabako ihesa 2. Etapa (Olabe-Saigots)
urriak 22
Ordunte-Zalama
azaroak 5
Etxaguen-OKETA-Ubidea
abenduak 3
Ondarru
Burumendi Mendi Elkartea

zuen elkartearen ekitaldien berri emateko idatzi helbide honetara:

aldizkaria@kalaputxi.eus

eta hemen argitaratuko ditugu iragartzeko dituzuenak

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es



Zuk ereindako hainbat hazik
herrian bizirik diraute,
eta gure Kalaputxik, 21 urte geroago,
ere bai.

Eskerrik asko, Xiri!

KALAPUTXI

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA

EUSKAL IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

2023 - 2024 IKASTURTEA

AURREMATRIKULA
Otsailaren 13tik 24ra

ATE IREKIAK:
OTSAILAK 15, 17:30etan





www.goizekoizarra.eus

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

SATURRAN GURASO ELKARTEA